

Donostia, a 15 de marzo de 2024

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, ALOKAIUKO ETXEBIZITZEI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAK otsailaren 12an izan zuen bileran Hirigintza Plangintzako eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkari Nekane Arzallusi Donostiako alokairuko etxebizitzari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den otsailean, Hirigintza Plangintza eta Etxebizitzako zinegotzi ordezkaria den Arzallus andreari hiriko alokairuko etxebizitzari buruzko interpelazio bat aurkeztu genion. Zehazki, Euskadiko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen azken xedapenetako laugarrena betetzeari buruz galdetu genion. Izan ere, laugarren xedapen horrek adierazten du legea onartu eta bost urte igaro ondoren, hau da, 2020tik aurrera, etxebizitza-arloko baliabide publikoen % 100 alokairura bideratuko dela, birgaitzerako baliabideak izan ezik.

Lege-xedapenez gain, adierazi behar da etxebizitza babestuaren egungo eskaria alokairura bideratzen dela; beraz, etxebizitza babestuaren erregimena, sustapen publikokoa zein pribatukoa, alokairura bideratu beharko litzateke.

Hala ere, aurreikuspen hori ez da kontuan hartzen ari egungo hirigintza-garapenetan eta etorkizunekoetan, eta, beraz, donostiarren arazo handienak, etxebizitza bat lortzeak, okerrera egiten jarraituko du.

Horrez gain, kontuan hartu behar da Euskadiko Etxebizitzaren Legea erabat garatu gabe dagoela. Gogora dezagun Lege honek, Konstituzio Auzitegiaren bermearekin, hainbat neurri aurreikusten dituela etxebizitza hutsik egon ez dadin, hala nola etxebizitza hutsen gaineko kanona, nahitaezko alokairua, etxebizitza hutsen desjabetzea, edo lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzea. Hala ere, Udal Gobernuak ez da neurri horiek aplikatzen ari.

Alokairurako tentsio handiko eremu deklarazioari dagokionez, gogorarazi nahi dugu alkateak, Goia jaunak, hiri osoa tentsio handiko eremu izendatzeko eskatu diola Eusko Jaurlaritzari, baina izendapen hori eraginkorra izan dadin, udal-gobernuak dagozkion txostenak egin behar dituela.

Aipatutako guztiagatik, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio etxebizitza-arloko baliabideen % 100 alokairuko etxebizitzara bideratzeko, Euskadiko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen azken xedapenetako laugarrena betez.
2. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio Euskadiko Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legean ezarritako neurri guztiak aplikatu dituzala, hirian etxebizitza hutsik egon ez dadin.
3. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio lehenbailehen egin dituzala dagozkion aurretiazko lan guztiak, hiri osoa alokairurako tentsio handiko eremu izendatzeko eta alokairuen prezioa mugatzeko.

Arantza Gonzalez Garcia,

Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia